

ARTE HEZKUNTZAKO ARLOAREN URTEKO PROGRAMAZIO DIDAKTIKOA

Urteko programazio didaktikoa

Ikastetxea:	Bentades Ikastetxea	Kodea:	014777	Ikasmaila:	6. maila.
Etapas:	Lehen Hezkuntza	Ziklo-maila:	3. zikloa, Lehen Hezkuntzako 6. maila		
<ul style="list-style-type: none"> • Arloa/Gaia • Eremua • Diziplinarteko proiektua • Beste batzuk 	Arte Hezkuntza	Irakasleak:	Julene Aguirrezabala eta Ane Barrenetxea		

Programazio didaktikoaren justifikazioa

Programazioan garrantzitsuak diren erabakiak argudiatzea eta, horretarako, honako alderdi hauek kontuan hartzea: ikasleen abiapuntua, ikasgelaren testuingurua, ikastetxearen proiektuak, urteko memoriatik eratorritako hobekuntza proposamenak, etab.

Programazio didaktikoaren justifikazioa:

Urteko programazio didaktikoa irakaskuntzako jarduera profesionalaren parte da, eta irakaskuntza- eta ikaskuntza-prozesua hobetzearekin lotuta dago. Funtsean, ikasleen beharrak eta ezaugarriak balioesten dituen helburu bat da, garatu nahi diren konpetentziak aztertzen dituen. Ondorioz, ikasleek arrakasta izateko ahalik eta itxaropen handienak garatzeko irakasle talde batean hartzen diren erabakiak zehazten dituen.

Oinarrizko irakaskuntzaren amaierako Ikasleen irteera-profila da Euskadi Autonomia Erkidegoko hezkuntza-sistemaren printzipioak eta helburuak zehazten dituen tresna. Profilak identifikatu eta definitzen du, ikasleek beren prestakuntza-ibilbidearen aldi hori amaitzean lortu nahi dituzten funtsezko konpetentzien garapen-maila, etengabeko ikaskuntza-prozesuaren zati gisa.

Irteera-profilaren abiapuntua da konpetentzia giltzarrien ikuspegi estrukturala eta funtzionala aldi berean, eta hori eskuratzea ezinbestekotzat jotzen da ikasleek beren garapen pertsonalerako, beren bizitzako esparruetako egoerak eta arazoak konpontzeko, hobetzeko aukera berriak sortzeko, bai eta haien sozializazioa garatzeko, prestakuntza-ibilbidearen jarraipena lortzeko eta gizartean eta ingurune naturalaren eta planetaren zaintzan aktiboki txertatzeko eta parte hartzeko ere. Proiektu hori ikaskuntza desberdinen elementu artikulatzailea da, eta, horri esker, zenbait erronkei aurre egin ahal izango die.

Oinarrizko irakaskuntza arrakastaz gainditzen duen ikasle orok, eta, beraz, irteera-profila lortzen duenak, eskuratutako ikaskuntzak mobilizatzen jakitea bermatu nahi da, bizitzan zehar izango dituen erronka nagusiei erantzuteko. Horren barruan sartzen dira:

- Jarrera arduratsua garatzea, ingurumenaren degradazioaren kontzientzia hartuz, hura eragiten, larriagotzen edo hobetzen duten arrazoiak ezagutzan oinarrituta, ikuspegi sistemiko batetik, tokikoa zein globala.
- Kontsumo arduratsuekin lotutako alderdiak identifikatzea, norberaren eta guztion ondasunean duten eragina baloratzea, beharrak eta gehiegikeriak kritikoki epaitzea eta kontsumitzaile gisa dituen eskubideen urraketen aurrean kontrol soziala egitea.
- Bizi-ohitura osasungarriak garatzea, organismoaren funtzionamendua ulertuta eta organismoan eragina duten barneko eta kanpoko faktoreei buruzko hausnarketa kritikoa eginda, osasun publikoa sustatzeko erantzukizun pertsonala bere gain hartuta.
- Sentsibiltatea lantzea ekitaterik eza eta bazterketa egoerak atzemateko, kausa konplexuak ulertuta, enpatia- eta erruki-sentimenduak garatzeko.
- Gatazkak gizarteko bizitzaren berezko elementu gisa ulertzea, modu baketsuan konpondu beharrekoak.
- Egungo gizarteak eskaintzen dituen era guztietako aukerak modu kritikoan aztertzea eta baliatzea, bereziki kultura digitalarenak, onurak eta arriskuak ebaluatuz eta bizi-kalitate pertsonala eta kolektiboa hobetzen lagunduko duen erabilera etiko eta arduratsua eginez.
- Ziurgabetasuna, erantzun sortzaileak artikulatzeko aukera gisa onartzea, berekin ekar dezakeen antsietatea maneiatzen ikasiz.
- Gizarte ireki eta aldakorretan lankidetzan aritzea eta elkarrekin bizitzea, aniztasun pertsonala eta kulturala aberastasun-iturri gisa baloratuz eta beste hizkuntza eta kultura batzuekiko interesa agertuz.
- Proiektu kolektibo baten parte sentitzea, bai tokiko eremuan, bai esparru globalean, enpatia eta eskuzabaltasuna garatuz

eta guztion onerako erabaki koherenteak bultzatuz eta hartuz.

- Bizitzan zehar ikasten jarraitzeko aukera emango dioten trebetasunak garatzea, ezagutzan konfiantza izanik, garapenaren motor gisa, eta ezagutzaren arrisku eta onuren balorazio kritikoa eginez.

Erronka horiei eta beste batzuei erantzuteko, funtsezko konpetentzien azpian dauden ezagutzak, trebetasunak eta jarrerak behar dira, eta curriculumak osatzen duten arlo, eremu eta jakintzagai guztietan lantzen dira. Horiek eskaintzen dituzten curriculum-elementuek ikasleei beren inguruan gertatzen dena ulertzen laguntzen diete, eta, horrela, egoera kritikoki baloratzeko eta behar bezala erantzuteko aukera ematen diete.

Hemen aurkezten den curriculumak konpetentzia-ikuspegia du, eta bertan, erronkei aurre eginez eskuratzen dira edukiak, kontzeptuzkoak, prozedurazkoak eta jarrerazkoak. Horrek ikaskuntzak eskuratzea eta mobilizatzea eta horiek transferitzeko gaitasuna bultzatzen du, eta, horrela, ikasleen prestakuntza-bilakaeran heldutasun-maila eta kalitate handiagoko ikaskuntza garatzen da.

Hurrengoak dira eskuratu beharreko funtsezko konpetentziak:

- **Hizkuntza komunikaziorako konpetentzia:** Hizkuntza-komunikaziorako konpetentziak esan nahi du hainbat esparru eta testuingurutan modu koherente eta egokian elkarrekintzan jardutea, ahoz, idatziz, siglatuan edo multimodalean, eta hainbat komunikazio-helbururekin.
- **Konpetentzia eleaniztasuna:** Konpetentzia eleaniztunak hainbat hizkuntza, ahozkoak edo zeinuzkoak, ikasteko eta komunikatzeko modu egoki eta eraginkorren erabiltzea eskatzen du.
- **Matematikarako konpetentzia eta zientzia, teknologia eta ingeniartzako konpetentzia:** Matematikarako konpetentziak eta zientzia, teknologia eta ingeniartzarako konpetentziak mundua ulertzea dakar berekin, metodo zientifikoak, pentsamendu eta irudikapen matematikoak, teknologia eta ingeniartzako metodoak erabiliz ingurunea modu konprometituan, arduratsuan eta jasangarrian eraldatzeko.
- **Konpetentzia digitala:** Konpetentzia digitalak teknologia digitalak modu seguruan, osasungarrian, jasangarrian, kritikoa eta arduratsuan erabiltzea eskatzen du, ikasteko, lanerako eta gizartean parte hartzeko, bai eta horiekin elkarreragitea ere.
- **Konpetentzia pertsonala, soziala eta ikasten ikastekoa:** Konpetentzia pertsonalak, sozialak eta ikasten ikastekoa berekin dakar nor bere buruari buruz hausnartzeko gaitasuna, nor bere burua ezagutzeko, bere burua onartzeko eta

etengabeko hazkunde pertsonala sustatzeko.

- **Herritartasunerako kompetentzia:** Herritartasunerako kompetentzia lagungarria da ikasleek herritartasun arduratsua izan dezaten eta bizitza sozial eta zibikoan bete-betean parte har dezaten, kontzeptu eta egitura sozial, ekonomiko, juridiko eta politikoen ulermenean oinarrituta.
- **Ekintzailetza kompetentzia:** Ekintzailetzarako kompetentziak aukera eta ideiekin jarduteko bizi-ikuspegia garatzea eskatzen du, beste pertsona batzuentzako baliozko emaitzak sortzeko beharrezkoak diren ezagutza espezifikoak erabiliz.
- **Kontzientzia eta adierazpide kulturaletarako kompetentzia:** Kontzientzia eta kultura adierazpenetarako kompetentziak berekin dakar ideiak eta esanahia sormenez adierazteko eta kultura desberdinetan komunikatzeko modua ulertzea eta errespetatzea.

Justifikazio legala aldera batera utziz, eskolako testuinguruari buruz hitz egingo dugu. Bentades Ikastetxea Mungian kokatzen den eskola bat da, uribe kosta zonaldean. Eskola honetako familiak maila sozioekonomiko ertaina dute eta datu soziolinguistikoei dagokienez esan dezakegu nahiz eta Mungia herri euskalduna izan, gero eta etorkin gehiago daudela eta hau ikastetxean isladatzen da.

Ikastetxe honetan 700 ikasle inguru ditugu haurtzaindegitik hasi eta derrigorrezko bigarren hezkuntza bukatu arte. Maila bakoitzean bi lerro daude. Ikasketak D ereduan gauzatzen dira.

Ikastetxeko baliabide materialak hurrengoak dira Lehen Hezkuntzan. Ikasle talde bakoitzak bere gela dauka eta horrez gain, musika gela, plastika gela, liburutegia, jantokia eta areto nagusia ditugu. Solairu batetik bestera igotzeko behar izatekotan igogailu bat daukagu. Beste alde batetik, heziketa fisikoa egiteko patioaz gain, eskolako sotoa eskuragarri daukagu. Hura espazio oso handia eta estalia da. Normalean heziketa fisikorako erabiltzen da baina antzerkiak edo tailerrak egiteko ere erabilgarria izan daiteke.

Beste alde batetik, gela bi erabiliko dira Arte Hezkuntzako arloa garatzeko. Bata, Musika gela izango dena eta bestea Plastika gela. Musika gelako baliabide materialak honako hauek dira; arbel digitala, musika instrumentu desberdinak, pentagramaren arbela, ikur musikalen hainbat poster, margoak, bozgoragailuak, irakaslearen ordenagailua eta ikasleentzako guk sortutako txostenak. Bestetik, plastikako gulan aurkitu daitezkeen materialak hurrengoak izango dira: margoak, argizerak, koloretako zerak, errotulkiak, pintxelak, plastilina, erregelak, artilea, koloretako orriak, artilea, gometsak, permanenteak... Hala ere, behar izatekotan, obra egiteko dagokion

materiala erosiko litzateke.

Baliabide pertsonalei dagokienez, Lehen Hezkuntzan 15 irakasle daude tutore eta irakasle espezifikoak gehituz. Beste alde batetik, orientazio talde bat dugu eta bertan 6 espezialista daude. Horrez gain eskolako orientatzaile eta psikologoa dugu behar izatekotan.

Irakasleak ez diren beste profesional batzuk ere lan egiten dute eskolan gure egunerokotasuna errazago izateko, adibidez: jantokiko langileak, eskolako atezainak, idazkariak, zuzendariak, eta abar.

Ikasle batzuen beharrezanean erantzuna emateko Berritzegunetik ere zenbait espezialista etortzen dira eskolara, adibidez: logopega, fisioterapeuta, eta abar.

Eskolan zenbait proiektuetan murgilduta gaude baina maila honetan ikasleek ez dute denetan parte hartzen. Hurrengoak dira:

- Agenda 30.
- Euskera eta normalkuntza
- Hizkuntza hirueleduna
- Bizikidetza
- IKT eta metodologia berriak
- Hezkidetza

Pasaden kurtsoko urteko memorian argitaratu zen bezala, hurrengoak dira etapa moduan ikasturte honetara begira planteatu genituen hobekuntzak:

- Metodologiari dagokionez, berrikuntzak sartzen jarraitu nahi dugu eta hasitako hobekuntza bidearekin jarraituko da.
- Euskerarekin lotuta gabezia ugari identifikatu ditugu eta hauei erantzuteko metodologia aldaketa bat proposatu da. Kurtso honetan zehar, irakasleok sortuko dugu materiala ziklo bakoitzari egokituta. Era horretan, ikasleak modu dinamiko eta erakargarrian hizkuntza bereganatu dezaten.

Programazio honen kalitatea eta emaitza bermatzeko, helburu errealistak ezarri behar ditugu. Horretarako irakasgai hau ematen

duzen irakasleak batu dira eta haien ikasleen errealitatera moldatu.

Kurtso honetan, beste guztietan bezala bi lerro ditugu. Gela batean 26 ikasle daude eta bestean 25. Ikasle gehienak testuinguru euskaldun batean hasiak dira, atzerritar bi ditugugela bien artean. Horietariko bat orain dela 5 urte hasi zen eskolan, beraz hizkuntzan zailtasunak eduki arren, oinarrizkoa menperatzen du. Beste ikasle atzerritarra pasaden kurtsoan etorri zen eta beraz, oinarrizkoa oraindik ez du menperatzen.

Beste alde batetik, premia bereziko 7 ikasle ditugu gela bien artean banatuta. Hauek J.P.P.a (jarduera plan pertsonalizatua) dute eta moldaketak egiten zaizkie, bakoitzari bere beharrietara. Hala ere, ikasle hauek orientazio departamentuko irakasleengatik ere laguntza jasotzen dute gela barnean, haien ikaskuntza prozesuan laguntzeko.

Gure helburua ikasleek era dinamiko batean oinarrizko jakintzak eta konpetentziak lantzea da pertsona arduratsu, autonomo, sortzaile eta kritikoa bihurtzeko. Bide hori jarraitu ahal izateko programazio hau haien beharrietara moldatuta dago.

Curriculum-plangintza

Ikaskuntza egoeren izenburua (IkE)	Arloak, gaiak, eremua	Konpetentzia espezifikoak <i>(Adierazi lotutako irteera-profilen deskribatzaile operatiboak)</i>	Ebaluazio-irizpideak	Oinarrizko ezagutzak
---	------------------------------	--	-----------------------------	-----------------------------

LEHENENGO HIRUHILEKOA

Musika historian zehar	Musika	<p>1 KE3, STEM1, KD1, KPSII3, HK1, EK2,KAKK1, KAKK2.</p>	<p>1.1 1.2 1.3</p>	<p>A. Musika hezkuntza</p> <p>A 0.1 A 0.2 A 0.3 A 0.4 A 0.5</p> <p>A 1.1</p> <p>A 2.3</p>
		<p>2 HKK3, KE3, STEM2, KD1, HK3, KAKK1, KAKK2.</p>	<p>2.1 2.2</p>	
		<p>4 HKK1, KE3, STEM3, HK2, EK1, EK3, KAKK3, KAKK4.</p>	<p>4.1 4.2 4.3</p>	
Kandinsky	Plastika	<p>1 KE3, STEM1, KD1, KPSII3, HK1, EK2,KAKK1, KAKK2.</p>	<p>1.1 1.2 1.3</p>	<p>A. Musika hezkuntza</p> <p>A 0.1 A 0.2 A 0.3 A 0.4 A 0.5</p> <p>B. Plastika eta Ikus Hezkuntza</p> <p>B 1.2</p>
		<p>2 HKK3, KE3, STEM2, KD1, HK3, KAKK1, KAKK2.</p>	<p>2.2</p>	

				B 1.3 B 2.1 B 2.2 C. Ikus-entzunezko Hezkuntza C 2.1
		4 HKK1, KE3, STEM3, HK2, EK1, EK3, KAKK3, KAKK4.	4.1 4.2 4.3	
Arimen gaua	Plastika	1 KE3, STEM1, KD1, KPSII3, HK1, EK2, KAKK1, KAKK2.	1.1	A. Musika hezkuntza A 0.1 A 0.2 A 0.3 A 0.4 A 0.5
		2 HKK3, KE3, STEM2, KD1, HK3, KAKK1, KAKK2.	2.2	B. Plastika eta Ikus Hezkuntza B 1.2 B 1.3
		4 HKK1, KE3, STEM3, HK2, EK1, EK3, KAKK3, KAKK4.	4.1 4.2 4.3	C. Ikus-entzunezko Hezkuntza C 2.1

BIGARREN HIRUHILEKOA

BIGARREN HIRUHILEKOA				
Musika historian (II)	Musika	<p>1 KE3, STEM1, KD1, KPSII3, HK1, EK2,KAKK1, KAKK2.</p>	<p>1.1 1.2 1.3</p>	<p>A. Musika hezkuntza</p> <p>A 0.1 A 0.2 A 0.3 A 0.4 A 0.5</p> <p>A 1.1 A 2.3</p>
		<p>2 HKK3, KE3, STEM2, KD1, HK3, KAKK1, KAKK2.</p>	<p>2.1 2.2</p>	
		<p>4 HKK1, KE3, STEM3, HK2, EK1, EK3, KAKK3, KAKK4.</p>	<p>4.1 4.2 4.3</p>	
Gabonak	Plastika	<p>1 KE3, STEM1, KD1, KPSII3, HK1, EK2,KAKK1, KAKK2.</p>	<p>1.1 1.2</p>	<p>A. Musika hezkuntza</p> <p>A 0.1 A 0.2 A 0.3 A 0.4 A 0.5</p>
		<p>2</p>	<p>2.2</p>	

		HKK3, KE3, STEM2, KD1, HK3, KAKK1, KAKK2.		B. Plastika eta Ikus Hezkuntza B 1.2
		4 HKK1, KE3, STEM3, HK2, EK1, EK3, KAKK3, KAKK4.	4.1 4.2 4.3	
Ihauteriak	Plastika	1 KE3, STEM1, KD1, KPSII3, HK1, EK2, KAKK1, KAKK2.	1.1 1.2	A. Musika hezkuntza A 0.1 A 0.2 A 0.3 A 0.4 A 0.5 B. Plastika eta Ikus Hezkuntza B 1.2 B 1.3 B 2.1 B 2.2 C. Ikus-entzunezko Hezkuntza
		2 HKK3, KE3, STEM2, KD1, HK3, KAKK1, KAKK2.	2.2	
		4 HKK1, KE3, STEM3, HK2, EK1, EK3, KAKK3, KAKK4.	4.1 4.2 4.3	

				C 2.1
Ilusioa eta perspektiba	Plastika	<p>1 KE3, STEM1, KD1, KPSII3, HK1, EK2,KAKK1, KAKK2.</p>	<p>1.1 1.2 1.3</p>	<p>A. Musika hezkuntza</p> <p>A 0.1 A 0.2 A 0.3 A 0.4 A 0.5</p> <p>B. Plastika eta Ikus Hezkuntza</p> <p>B 1.2 B 1.3</p> <p>B 2.1 B 2.2</p> <p>C. Ikus-entzunezko Hezkuntza</p> <p>C 2.1</p>
		<p>2 HKK3, KE3, STEM2, KD1, HK3, KAKK1, KAKK2.</p>	<p>2.2</p>	
		<p>4 HKK1, KE3, STEM3, HK2, EK1, EK3, KAKK3, KAKK4.</p>	<p>4.1 4.2 4.3</p>	
HIRUGARREN HIRUHILEKOA				
Adierazpen korporala	Musika	<p>1 KE3, STEM1, KD1,</p>	<p>1.1 1.2 1.3</p>	A. Musika hezkuntza

		KPSII3, HK1, EK2,KAKK1, KAKK2.		A 0.1 A 0.2 A 0.3 A 0.4 A 0.5
		2 HKK3, KE3, STEM2, KD1, HK3, KAKK1, KAKK2.	2.1 2.2	A 1.1 A 2.1 A 2.2 A 2.3
		3 HKK1, KE1, KD2, KPSII5, HK2, EK1, KAKK3, KAKK4.	3.1 3.2 3.3	C. Ikus-entzunezko Hezkuntza C 2.1 C 2.2 C 2.3 C 2.4
		4 HKK1, KE3, STEM3, HK2, EK1, EK3, KAKK3, KAKK4.	4.1 4.2 4.3	D. Arte Eszeniko eta Performatiboetako Hezkuntza D 1.1 D 1.2 D 1.3 D 2.1 D 2.2
Arkitektura	Plastika	1	1.1	

		KE3, STEM1, KD1, KPSII3, HK1, EK2, KAKK1, KAKK2.	1.2 1.3	A. Musika hezkuntza A 0.1 A 0.2 A 0.3 A 0.4 A 0.5 B. Plastika eta Ikus Hezkuntza B 1.2 B 1.3 B 2.1 B 2.2 C. Ikus-entzunezko Hezkuntza C 2.1
		2 HKK3, KE3, STEM2, KD1, HK3, KAKK1, KAKK2.	2.2	
		4 HKK1, KE3, STEM3, HK2, EK1, EK3, KAKK3, KAKK4.	4.1 4.2 4.3	

Erabaki metodologikoak

Estrategiak eta metodoak, hizkuntzen tratamendua, IDU, ikasleen eta irakasleen antolamendua, espazioen eta baliabideen erabilera, anistazunari erantzuna, etab.

A. Jarraibide metodologikoak:

A.1. Eredu metodologikoak: Metodologia proiektuan oinarritutako ikaskuntzan oinarrituko da. Ikasleek ingurunea esploratuko dute, beren mailari egokitutako ikerketa zientifikoko metodoak erabiliz.

A.2. Multzokatzeak: Multzokatzeak malguak izango dira, proiektuaren fase desberdinetara egokituz. Talde txikietan antolatuko dira ideien trukea sustatzeko eta proiektua aurrera eraman ahal izateko. Horrez gain, banaka ere lan egingo dute, non bakoitzak bere trebeziak praktikan jarriko dituen.

A.3. Espazioak: Ikasketa-espazio nagusia musika arloa jorratzeko musika gela izango da eta plastikaren inguruko lanak aurrera eramateko ikasgela ohikoa izango da. Horrez gain, behar izatekotan beste espazioen batera mugitu gaitzke, behrrikanen arabera.

A.4. Baliabideak: Baliabide desberdinak erabiliko dira, besteak beste:

- Material multimedia eta interaktiboa (bideoak, abestiak,).
- Musikako txosten fisikoak.
- Ordenagailuak
- Classroom-a
- Abestiak sortzeko programa desberdinak (BandLab).
- Marrazki block-a.
- Kanpo materialak, hala nola behaketa zuzenerako beste material batzuk.

B. Aniztasunari arreta:

Ikasleen aniztasunari erantzuteko, edukia eta jarduerak egokituko dira, ikasle bakoitzak bere ikaskuntza-erritmoaren eta premien arabera helburuak lor ditzan. Dibertsifikazio estrategiak erabiliko dira, hala nola laguntza-materialak, ikusizko laguntzak eta azalpen egokituak. Egia bada ere talde-lanak izango direla gure oinarri, gelan landutakoa modu bisual eta argian eskuragai izan dezaten, mapa kontzeptualak banatuko zaizkie ikasle guztiei. Hauek ere baliagarri izango dira etxean gelan landutako birpasatu ahal izateko. Halaber, aurrerapen azkarra duten ikasleei jarduerak zabaltzeko aukera eskainiko zaie. Aniztasunari arreta horretan ikasle guztiek ekarpena egin dezakete, beren gaitasunen arabera.

Curriculum-a hasiera batetik egokitua egon behar da ikasleetara eta ez alderantziz. Horrela, curriculum pertsonalizatu eta praktikoagoa lortuz, non ikasle guztien beharrak erantzuten eta asetzen diren. Beraz, hori lortzeko Ikaskuntzaren Diseinu Unibertsala-ren (IDU) 3 printzipioak martxan jarri behar dira.

I. printzipioa: Ikasleei erraminta eta bide desberdinak emango zaizkie autonomiaz informazioa eta oinarrizko jakintzak eraikitzeko.

II. printzipioa: ikasleek ikasitakoa era desberdinetan adierazi ahalko dute: idatziz, ahoz eta abar. Bakoitzaren beharrianetara moldatuko gara eta baita ebaluazioaren zein momentutan gauden.

III. printzipioa: ikasleei erronka ezberdinak aurkeztuko zaizkie era desberdinetan parte hartu ahal izateko eta era horretan ikasle guztiak ikaskuntza prozesuan konprometitu eta motibatu daitezke era desberdinetan.

C. Ebaluazioa :

Ebaluazioa jarraia izango da, eta honela burutuko da:

- Behaketa zuzena, jarduera eta proiektuetan ikasleek duten errendimendua neurtzeko.
- Ebaluazio errubrikak erabiltzea, konpetentzia zehatz eta jarrerazkoak baloratzeko (erantzukizuna, elkarlana...).

Gainera, ebaluazioaren barne dira ebaluazio kualitatibo eta kuantitaboak, edukien ulermena eta konpetentzien garapena neurtzeko.

D. Errefortzurako estrategiak eta berreskurapen-planak:

Konpetentzien ulermenean eta garapenean zailtasunak dituzten ikasleei laguntza eskainiko zaie:

- Tutoretza pertsonalizatuak eskaintzea, oinarrizko kontzeptuak berrikusteko.

Ebaluazio-erabakiak, ebaluaziotik ateratako ondorioak eta kalifikazio-irizpideak

Ebaluazioa

- Helburua (formatiboa, akreditatzailea)
- Finkatutako denborak (hasieran, prozesuan zehar, amaieran)
- Ebaluatze teknikak, tresnak eta erramintak
- Eragileak (autoebaluatzea, elkarri ebaluatzea eta heteroebaluatzea)

- Helburua ebaluazio formatiboa izatea da.
 - Ebaluazio hezitzailea:
 - Ikaskuntza- irakaskuntza prozesuan zehar.
 - Informazio bilketa jarraia.
 - Ikaskuntza- irakaskuntza gidatzeko eta ikasleen jarduna hobetzeko erabiliko da.
 - Ebaluazio hezigarria: ikasleek bideratua.
- Finkatutako denborak: ebaluazioa prozesuaren hasieran, prozesuan zehar eta amaieran izango da.
- Ebaluatze teknikak:
 - Behaketa etengabe oinarrituta
 - Banakako zein taldeko jarduerak
 - Talde lanak.
 - Ikerketa
 - Auzkezpen idatzia
 - Dantza
 - Marrazki block-a
 - Classroom-a
- Eragileak:
 - Heteroebaluazioa.
 - Autoebaluazioa
 - Koebaluazioa

<p>Ebaluazioaren ondorioak:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Kalifikazioa 	<p>Ikasle baten ikaskuntzari buruzko ebidentzia asko eta anitzak eskuratu eta gero, ebaluaziotik eratortzen den kalifikazioa lortuko dugu.</p> <p>Kompetentzia espezifikokoak oinarri hartuta egingo da eta hauen zehaztapen maila lorpen adierazleak izango dira.</p> <p>Ebaluaketa bakoitzaren amaieran boletin bate jasoko dute familiek. Boletin honetan irakasgai honetako kompetentzia espezifikoetan lortutako maila agertuko da: maila aurreratua, maila ertaina edo hasierako maila; kolorez adierazita.</p> <p>Honez gain, kurtso bukaeran eta Hezkuntza sailak ezarrita notak era kualitatibo baten jarri behar ditugu Hezkuntzako plataforman.</p>																				
<p>Kalifikazio-irizpideak</p> <p>Ikastetxearen autonomiaren baitan, curriculumaren hainbat erabaki curricular hartuko dira, hala nola:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Ikas-maila bakoitzerako lorpen-mailak erabakitzea • Ebaluazio irizpideen jardun maila adostea. • Gaitasunen garapen-maila adostea • Berariazko gaitasunen ponderazioa, • ebaluazio-irizpideak... definitzea) 	<p>Azken kalifikazioa kompetentzia espezifikoen ponderazioarekin lortuko da. Ondoren adierazten den kompetentzia espezifikoen ponderazioa hartuko da kontuan.</p> <p><i>* Kompetentzia espezifikoko guztien ponderazioa ez da zertan berdina izan.</i></p> <table border="1" data-bbox="772 949 2089 1375"> <thead> <tr> <th>ZER</th> <th>PORTZENTAIA</th> <th>KOMPETENTZIA ESPEZIFIKOAK</th> </tr> </thead> <tbody> <tr> <td colspan="3" style="text-align: center;">1. HIRUHILEKOA</td> </tr> <tr> <td colspan="3" style="text-align: center;">1. Proiektua: Musika historian</td> </tr> <tr> <td>Musika historian</td> <td>% 50</td> <td>1, 2, 4</td> </tr> <tr> <td colspan="3" style="text-align: center;">2. Proiektua: Kandinsky</td> </tr> <tr> <td>1. Erronka</td> <td>% 5</td> <td>1, 2, 4</td> </tr> </tbody> </table>			ZER	PORTZENTAIA	KOMPETENTZIA ESPEZIFIKOAK	1. HIRUHILEKOA			1. Proiektua: Musika historian			Musika historian	% 50	1, 2, 4	2. Proiektua: Kandinsky			1. Erronka	% 5	1, 2, 4
ZER	PORTZENTAIA	KOMPETENTZIA ESPEZIFIKOAK																			
1. HIRUHILEKOA																					
1. Proiektua: Musika historian																					
Musika historian	% 50	1, 2, 4																			
2. Proiektua: Kandinsky																					
1. Erronka	% 5	1, 2, 4																			

	2. Erronka	% 12	1, 2, 4
	2. Erronka	% 8	1, 2, 4
3. Proiektua: Arimen gaua			
	1. Erronka	% 10	1, 2, 4
	2. Erronka	% 15	1, 2, 4
2. HIRUHILEKOA			
4. Proiektua: Musika historian (II)			
	Musika historian (II)	% 50	1, 2, 4
5. Proiektua: Gabonetako eskulana			
	1. Erronka	% 2	1, 2, 4
	2. Erronka	% 3	1, 2, 4
6. Proiektua: Ihauteriak			
	1. Erronka	% 3	1, 2, 4
	2. Erronka	% 5	1, 2, 4
7. Proiektua: Ilusioa eta perspektiba			
	1. Erronka	% 2	1, 2, 4
	2. Erronka	% 10	1, 2, 4
3. HIRUHILEKOA			

	8. Proiektua: Adierazpen korporala		
	Adierazpen korporala	% 50	1, 2, 3, 4
	9. Proiektua: Arkitektura		
	1. Erronka	% 25	1, 2, 4
	2. Erronka	% 25	1, 2, 4

1.ERANSKINA: KOMPETENTZIA ESPEZIFIKOAK

1. Kultura, garai eta estilo desberdinetako arte-proposamenak ezagutzea, harrera aktiboaren bidez eta tresna digitalak erabiliz, jakin-mina, sentsibiltatea, errespetua eta pentsamendu kritikoa garatzeko.
2. Askotariko inguruneetako ondarea osatzen duten kultura- eta arte-adierazpenei buruz ikertzea, metodo zientifikoa erabiltzen hasiz eta hainbat bide eta baliabide erabiliz, norberaren pentsamendua eta kultura-nortasuna zenbait testuingurutan garatzeko.
3. Soinuaren, irudiaren, gorputzaren eta baliabide digital eta multimodalen aukerekin esperimentatzea, ikerketa-jardueren eta esperientzien bitartez, ideiak, sentimenduak eta emozioak sormenez adierazteko eta komunikatzeko.
4. Kolaborazioko kultura- eta arte-produkzioen diseinuan, elaborazioan eta zabalkundean parte hartzea, prozesuari balioa emanaz eta azken emaitza lortzeko zenbait rol bere gain hartuz, sormena, autorearen nozioa eta pertinentziaren zentzua garatzeko.

2.ERANSKINA: EBALUAZIO IRIZPIDEAK

1. KONPETENTZIA

1.1 Kultura- eta arte-adierazpenen bereizgarri diren zenbait korronte, estilo eta genero bereiztea, horiekiko interesa nabarmenduz harrera aktiboaren bidez eta genero-ikuspegia txertatuz.

1.2 Kultura- eta arte-adierazpen nabarmenenak deskribatzea, digitalak barne, haien ezaugarriak irekitasunez miatuz eta haien artean harremanak ezarriz.

1.3 Kultura- eta arte-adierazpen analogikoen eta digitalen aberastasuna miatzea, haiek sortzen dituen aniztasuna ezagutuz, errespetatuz eta baloratuz, eta haien elementuren bat bereganatuz.

2. KONPETENTZIA

2.1 Estrategiak garatzea kultura- eta arte-adierazpenei buruzko informazioa bilatzeko, hautatzeko eta antolatzeke, zenbait kanal eta sarbide analogiko eta digitalen bitartez, kolaborazio-lanean.

2.2 Hainbat ingurunetako ondarea osatzen duten zenbait kultura- eta arteadierazpenen esanahia konparatzea, horien bereizgarri diren elementu nagusiak analizatuz eta norberaren balorazio-irizpideak garatuz, elkarrizketarako jarrera irekia eta errespetua erakutsita.

2.3 Zenbait kultura- eta arteadierazpenek eragindako sentrazio eta emozioak baloratzea, haien testuingurua kontuan harturik eta norberaren kultura-nortasunarekin modu inklusiboan erlazionatuz.

3. KONPETENTZIA

3.1 Gorputzaren eta arte-adierazpeneko askotariko tresnen adierazpen- eta komunikazio-aukera batzuk erabiltzea, aplikazio praktikoaren bitartez, jakinmina, interesa eta hobetzeko grina erakutsita.

3.2 Helburu espezifiko batera egokitutako zenbait adierazpenproposamen pertsonal sortzea eta partekatzea, ideien, sentimenduen eta emozioen adierazpenaren bitartez, norberaren gaitasunetan konfiantza erakutsiz, enpatia agerian jarritz, besteen gaitasunak baloratuz eta egikaritzeko modua hobetuz.

4. KONPETENTZIA

4.1 Kultura- eta arte-produkzio analogikoak eta digitalak planifikatzea, berdintasunean eta aniztasunaren errespetuan oinarritutako hezkidetzaren ikuspegitik hitzartutako helburuak beteko dituen azken emaitza lortzeko kolaborazio-lanean jardunez.

4.2 Sorkuntza-prozesuan parte hartzea, zenbait arte-hizkuntzarako elementuak erabiliz eta konpromisoa, parte-hartze aktiboa eta errespetua erakutsiz, baita ingurune digitaletan ere.

4.3 Sormen-esperientzia ebaluatzea eta ezagutaraztea, zenbait komunikazio-estrategia analogiko zein digital erabiliz, prozesuaz eta lortutako azken emaitzaz gozatzuz, eta besteen iritzia baloratuz, berdintasunean eta aniztasunaren errespetuan oinarritutako hezkidetzaren ikuspegiaren bitartez.

3.ERANSKINA: OINARRIZKO JAKINTZAK

A. Musika Hezkuntza

0. Lau multzoetako jakintza komunak

- A.0.1. Arte-sorkuntzari eta -interpretazioari lotutako lanbideak. Ezagutza eta balorazioa.
- A.0.2. Arte-esparruko hiztegi espezifikoa. Ezagutza eta erabilera.
- A.0.3. Zenbait espaziotan arte-proposamenak hartzeko portaera-arauak. Haien balorazioa, espiritu kritikoarekin.
- A.0.4. Arte-esperientziaren bitartez sortutako oinarrizko emozioak ezagutu eta komunikatzeko estrategiak.
- A.0.5. Baliabide digitalak. Arte-produkzioak transformatzeko, sortzeko eta ezagutarazteko grabazioko eta ediziozko aplikazio informatikoak. Beste batzuek sortutako edukiak erabiltzeko eta banatzeko lizentziekiko errespetua.

1. Pertzepzioa eta analisisia

- A.1.1. Zenbait korrante estetiko, jatorri eta garaitako musika-proposamen bokal eta instrumentalak. Grabazio eta kontzertu entzunaldiak.
- A.1.2. Entzumen-hezkuntza: soinua eta bere nolakotasunak.
- A.1.3. Entzumena aktiboa eta barne-memoria. Deskribapena, ezagutza eta analisisia. Zarata-egoeren eta kutsadura akustikoaren aurreko jarrera kritikoa.
- A.1.4. Soinu-aniztasuna eta egitura erritmiko-melodikoen adierazpen eta sailkapenak, zenbait grafiaren bitartez.
- A.1.5. Ahotsa eta musika-instrumentuak. Sailkapena. Instrumentu digitalak eta ez-konbentzionalak. Euskal Herriko instrumentu tradizionalak.
- A.1.6. Izaera, konpasa, tempoa, melodia, forma eta musika-generoak abestiaren bitartez.

A.1.7. Isilunea: entzunaldian eta musika-praktikan zehar arreta iraunarazteko elementu eta baldintza ezinbestekoa.

2. Sorkuntza eta interpretazioa

A.2.1. Instrumentu-, ahots- eta gorputz-praktika: esperimentazioa, miaketa sortzailea, interpretazioa eta inprobisazioa soinu- eta adierazpen-aukeretatik abiatuta.

A.2.2. Euskal Herriaren eta beste kultura batzuen berezko musika-proposamen bokal eta instrumentalak interpretatzeko estrategiak.

A.2.3. Musika-sorkuntza eta -produkzioa: proiektuaren plangintza. Materialak hautatzeko jarraibideak.

B. Plastika eta Ikus Hezkuntza

1. Pertzepzioa eta analisia

B.1.1. Ikus-kultura. Irudia gaur egungo munduan. Interpretazio-prozesua: behaketa, irakurketa, analisia, interpretazioa eta ebaluazioa.

B.1.2. Plastika- eta ikus-proposamen garaikideak eta beste garai batzuetakoak. Kultura- eta arteespazioak. Ondare arkitektonikoa, artistikoa eta bisuala.

B.1.3. Puntua, lerroa, plano, ehundura, kolorea eta espazioko antolaketa. Adierazpen- eta komunikazio-aukerak.

B.1.4. Plastika- eta ikus-adierazpenean gehien erabiltzen diren materialak, tresnak, euskarriak eta teknikak.

2. Sorkuntza eta interpretazioa

B.2.1. Plastika-adierazpeneko bitartekoak, euskarriak eta materialak, arte-formatu garaikideak barne: esperimentazioa eta adierazpena. Bi dimentsioko eta hiru dimentsioko teknikak. Adierazpenasmoa hitzez adierazteko jarraibideak.

B.2.2. Sorkuntza-prozesuaren faseak: plangintza, interpretazioa, esperimentazioa eta ebaluazioa. Prozesuaren eta produktuaren arteko oreka. Kolaborazio-egikaritzea. Norberaren eta besteren prozesuaren zein azken produktuaren balorazioa.

C. Ikus-entzunezko Hezkuntza

1. Pertzepzioa eta analisisa

C.1.1. Ikus-entzunezko proposamenak: zinema, publizitatea, dokumentalak, telesailak, eduki digitalak. Kultura- eta arte-espazio unibertsalak.

C.1.2. Hizkuntza zinematografikoaren eta ikus-entzunezkoaren oinarritzko nozioak. Proposamen ikoniko, zinematografiko eta ikus-entzunezkoen ikustaldi eta analisisa, modu kritikoan.

C.1.3. Ikus-entzunezko estilo, genero eta formatuei buruzko oinarritzko nozioak: irudi finkoa eta mugikorra. Fikzioa eta ez-fikzioa. Animazioa.

2. Sorkuntza eta interpretazioa

C.2.1. Ikus-entzunezko elementuen erregistroa eta edizioa (irudia, audioa eta partiturak): kontzeptuak, teknologiak, teknikak eta oinarritzko baliabideak. Bilatzeko, iragazteko eta baloratzeko estrategiak.

C.2.2. Istorio errazen konposizioa, bakarka eta taldean, komunikazio- eta adierazpen-asmoarekin, berregiteko, kontatzeko eta grabatzeko.

C.2.3. Ikus-entzunezko produkzioak: sorkuntza-prozesuaren faseak eta rolak. Kolaborazio-lana, eta prozesuak dauden genero eta formatuetan duen garrantzia.

C.2.4. Produkzio multimodalak: errealizazioa. Ikus-entzunezko hizkuntza multimodalaren ezaugarriak. Oinarritzko animazio-teknikak.

C.2.5. Ikus-entzunezko mezuen esperimentazioa eta zabalkundea: prozesu teknikoak

D. Arte Eszeniko eta Performatiboetako Hezkuntza

1. Pertzepzioa eta analisisia

D.1.1. Zenbait leku, garai eta estilotako gorputz-adierazpenari eta arte eszenikoei lotutako adierazpenak, garaikideak barne.

D.1.2. Genero eszenikoak. Horietarako hurbilketa eta interpretazio dramatikoaren garrantziaren balorazioa.

D.1.3. Adierazpen eszenikoaren funtsezko elementuak. Rolak, materialak eta espazioak. Antzerki-izaera. Oinarrizko egitura dramatikoa. Praktikaren balorazioa eta interesa.

2. Sorkuntza eta interpretazioa

D.2.1. Gorputza eta bere aukera motorrak, dramatikoak eta sortzaileak, komunikatzeko, dibertitzeko eta ideiak, sentimenduak eta emozioak adierazteko baliabide gisa. Dantza, dramatizazioa eta antzerki-emanaldia.

D.2.2. Oinarrizko drama- eta dantza-teknikak. Adierazpen-hizkuntzak. Ekintza performatiboekin esperimentatzeko jarraibideak. Inprobisazio gidatua eta sortzailea.

D.2.3. Gorputz-sorkuntza eszenikoaren eta dramatikoaren faseak: proiektuaren plangintza, behaketa eta adierazpen-asmoa hitzez adieraztea: sarrera. Materialak hautatzeko jarraibideak.